

Yanire Lorenzo, Oihane Redondo, Aidé Martín

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Igela enpresak garrantzia handia emango dio bezeroei, hori ziurtatzeko denda fisikoan erosleei laguntza pertsonala eskainiko diegu. Bezeroak enpresako ordezkari erreal batekin komunika daitezkeen harremanaren bidez, zeinak erosketa egiteko unean bertan laguntza jasotzeko aukera ahalbidetzen duena. Bestalde, zerbitzu automatizatua izango da webgunea duena.

Bezeroak mantentzeko eta erakartzeko hauek dira gure proposamenak:

Alde batetik, bezeroak erakartzeko, dendaren berezitasunaz aparte, hainbat aktibitate proposatzen ditugu. Esate baterako moda tailerrak. Irudi pertsonaleko tailerren bidez ikasteko eta haien irudia hobetzeko prest dauden prestonak erakarriko ditugu. Aparte, enpresaren produktuak erabiliko direnez publizitate egiteko primerako aukera da.

Beste aldetik, enpresak dauzkan bezeroei eusteko, fideltasun- / bazkide-txartelak eta iradokizun-postontziak martxan jarriko ditugu. Bazkide txartelak egiteko izen-abizenak, posta elektronikoa, mugikorraren zenbakia eta urtebetetzea eskatu dira. Txartelaren bidez erosketa kopuru batera ailegatu eta gero, deskontuak edo berezitasunak eskainiko diegu. Gainera emandako datuei esker, posta elektronikoa bat bidaliko diegu haien urtebetetzean esanez %10ko deskontua dutela.

Iradokizun postontziaren zerbitzuari dagokionez, webgunean agertuko da. Bertan erosleek bidalitako iritziak, ideiak... kontuan hartuz, gure proiektuan hobekuntzak egingo ditugu.